

NOLA ARI ZARA BIZITZEN ITXIALDIA?



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

GAZTEMATIKA



TXOSTENAREN AURKIBIDEA

I AZTERKETAREN HELBURUA eta FITXA

II LAGINAREN EZAUGARRIAK

III EMAITZEN AZTERKETA

1. Beraien eskubideen gaineko pertzepzioa
2. Itxialdiaren beharra
3. Etxebizitzan bizi diren pertsona kopurua
4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak
5. Etxean eskura dituzten baliabideak
6. Itxialdian denbora pasatzeko dituzten ohitura eta joerak
7. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila
8. Ikasketekin lotutakoak
9. Sentimenduak
10. Bukaerako galdera irekia

IV ONDORIO NAGUSIAK



I. GALDETEGIAREN HELBURUA


- Haurren eta Nerabeen sustapenaren arloan uste dugu haurrak eta nerabeak ez direla ahaztu behar. Konfinamendua agindu zenetik, guztiontzako salbuespenezkoa den aldi batean sartu ginen, baina bereziki haientzako da ohiz kanpoko. Etxean sartuta geratu dira, irten ezinik eta noiz arte jakin gabe. Guztiz ulertzen ez dugun egoera irreal batean murgilduta gaude, eta horren aurrean babesgabe eta beldurtuta sentitzen gara.
 - Horregatik garrantzitsua iruditu zaigu zuzenean galdetzea **itxialdia nola bizitzen ari diren, nola eragiten ari zaien eta zer sentitzen ari diren jakiteko. Hala, aukera eman nahi izan diegu beren kezka eta bizipenak azaltzeko. Egoera hau bakarka eta kolektibo moduan nola interpretatzen ari diren ezagutu nahi dugu; entzunak izatea, talde gisa aintzat hartuak izatea, beren eskubideak errespetatuz.**
-
- **Online inkesta bat egitea erabaki da** zabaltzeko erraza delako eta datuak jasotzeko modu azkarra delako.
 - **Aukeratutako lagina da**, ez probabilistikoa, hau da, gazteak ez ditu ikerketa-talde batek hautatu; nahi izan duen 10-17 urte bitarteko Gipuzkoako edozein pertsona inkestari erantzuteko aukera izan du; beraz, emaitzak ezin dira Gipuzkoako haur eta nerabe guztientzat orokortu.
 - Galdetegia oinarritzen da GSIA taldeak estatu mailan zabalduetako inkestan (<http://grupodeinfancia.org/>) ; bertatik galdera batzuk aukeratu, eta euskarara itzuli ondoren, Gipuzkoako haur eta nerabeen artean zabaldu da.
 - Inkesta betetzeko epea konfinamenduaren 3. astean (2020ko Apirilaren 2an) hasi zen, eta Apirilaren 13an bukatu zen.



II LAGINAREN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin esan handia izan dela jasotako erantzun kopurua; inkesta bikoiztuak garbitu ondoren, baliozko inkesten azken kopurua **948** da. Horietatik 776 (%82a) euskaraz, eta 172 (%18a) gaztelaniaz.


Horretaz gain azpimarra nahiko genuke ere asko zabaldu dela inkesta Gipuzkoan zehar: 53 herrietatik iritsi zaizkigu erantzunak



Orokorrean herri bakoitzetik ez dira erantzun asko jaso; 8 herrietatik bakarrik jaso ditugu 30 erantzun baino gehiago. Argiago ikusiko dugu erantzunen jatorria hurrengo mapan.



Mapan ikus daitekeenez Donostia, Buruntzaldea eta Urolatik jaso dira erantzun gehien; eskualde bakoitzean erantzun guztien %20a inguru, hiruren artean %60a.




[1] Herria zehaztu ez duten 8 erantzun jaso ditugu (totalaren %1,2a) .



Laginarren ezaugarriak

Lehenago esan bezala, 948 izan dira jasotako erantzunak; sexuaren arabera sailkatuta ikusten duguna da nesken parte-hartzea handiagoa izan dela, zehazki %58a. Erantzun dutenen %3ak nahiago izan du sexua ez esatea.

PARTE-HARTZEA SEXUAREN ARABERA		
	TOTALA	%
NESKAK	554	58
MUTILAK	367	39
EG	27	3
GUZTIRA	948	100




[3] EG: "Nahiago dut ez esatea" erantzun dutenen kopurua da.



Laginareen ezaugarriak

Galdetegia 10-17 urte bitarteko gipuzkoarrei zuzendu diegu, eta adinaren arabera jasotako erantzunak honako hauek izan dira:

PARTE-HARTZEA ADINA ETA SEXUAREN ARABERA




	10	11	12	13	14	15	16	17	Guztira
Mutilak	36	42	82	60	54	50	25	18	367
Neskak	35	57	112	86	81	83	57	43	554
EG	1	1	5	3	4	7	3	3	27
Guztira	72	100	199	149	139	140	85	64	948

Estatuko datuekin alderatuta ikus daitekeena da bi kasuetan 12 urtekoek direla gehien parte hartu dutenak. Bi ikerketetan ere 10-14 adin tartekoak dira gehiengoak. Gipuzkoako kasuan berriz, 15-17 adin tartekoak partaidetza altuagoa izan da.

- 12 urtekoak dira gehien erantzun dutenak.
- Orokorrean 12-15 urte dituztenek gehiago parte hartu dute.
- Halere, urte guztiak ordezkaturik daude.
- Sexuan zentratuz, lehenengo ondorioa da 11 urtetik gora neskek gehiago erantzun dutela, eta proportzioa handiagoa dela adina gora egiterakoan; 16 eta 17 urte dituztenen artean nesken parte-hartzeak mutilena bikoiztu arte.

Gráfico 1: ¿Cuántos años tienes ahora? (%) sobre el total de participantes





Laginaren ezaugarriak

Interesgarria iruditu zaigu parte-hartzaileekin bi talde egitea : bat 10-13 urte dituztenekin eta bestea 14-17 urte dituztenekin.

Erantzunetan ere 2 taldetan sailkatuta egingo dugu azterketa hainbat kasutan.


Parte-hartzeari dagokionez ikusten duguna da gazteenak izan direla gehiago erantzun dutenak. Halere, kontutan izanda zerbitzuetan nerabezaroaren azken urteetan (16-17) daudenek edukitzen duten parte-hartze maila baxua, oraingo honetan nahiko altua izan dela iruditzen zaigu.

PARTE-HARTZEA
ADIN-TARTEAREN ARABERA

	TOTAL	
	A	%
10-13 urte	520	55
14-17 urte	428	45
GUZTIRA	948	100

Parte hartzea adin-tartearen arabera (%)

10-13 urte 14-17 urte







Laginaren ezaugarriak

Sexuari dagokionez bi taldeetan nesken parte-hartzea altuagoa izanik , nabarmenagoa da aldea 13-17koen artean

	PARTE HARTZEA ADIN-TARTEKA ETA SEXUKA							
	MUTILAK		NESKAK		EG		GUZTIRA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
10-13 urte	220	60	290	52	10	37	520	55
14-17 urte	147	40	264	48	17	63	428	45
GUZTIRA	367	100	554	100	27	100	948	100



[3] EG: "Nahiago dut ez esatea" erantzun dutenen kopurua da.




III EMAITZEN AZTERKETA

1. Beraien eskubideen gaineko pertzepzioa

Galdetegiaren lehenengo galderaren bidez neurtu nahi izan dugu haur eta nerabeek eskubide subjektu gisa duten pertzepzioa. Erantzun dutenen %80a nahiko edo guztiz ados dago 18 urte baino gutxiago dituztenek eskubideak dituztela baieztapenarekin.

18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu	
Batere ados ez	69
la ez nago ados	124
Nahiko ados	398
Gutziz ados	357
TOTALA	948

18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu



Esaldiarekin nahiko edo guztiz ados dauden portzentajea nabari igotzen da estatu mailako ikerketan, bertan %90koa baita.




III EMAITZEN AZTERKETA

1. Beraien eskubideen gaineko pertzepzioa

Beheko taulan jaso dira 18 urte baino gutxiago dituztenek eskubideak dituztela ideiarekin nahiko ados edo ados daudenen kopuruak adina eta sexuaren arabera:

18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu



	10	11	12	13	14	15	16	17	Guztira
Mutilak	32	36	61	44	46	43	21	16	299
Neskak	29	42	78	66	69	63	48	39	434
EG	1	1	4	3	2	6	2	3	22
Guztira	62	79	143	113	117	112	71	58	755

Adin guztietan gehiengoa baieztapen horren alde agertzen bada ere, 12-13 urtekoak dira portzentaje baxuena dutenak.




III EMAITZEN AZTERKETA

1. Beraien eskubideen gaineko pertzepzioa

18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu

Nahiko edo guztiz ados agertu direnak sexuaren arabera (%)



Sexuaren arabera azterketa egiterakoan ikusten duguna da mutilek beraien eskubideen inguruko pertzepzio altuagoa dutela.

MUTILAK	NESKAK	EG	GUZTIRA
299	434	22	755




III EMAITZEN AZTERKETA

1. Beraien eskubideen gaineko pertzepzioa

18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu

Nahiko edo guztiz ados agertu direnak sexua eta adin-tartearen arabera (%)



Bi adin taldetan bilduz gero ikusten duguna da nerabeen artean zabalduagoa dagoela eskubideak dituztenen pertzepzioa.

Baina bi taldeetan neskek mutilek baino portzentaje baxuago batean.

	MUTILAK	NESKAK	EG	Guztira
10-13 urte	173	215	9	397
14-17 urte	126	219	13	358
GUZTIRA	299	434	22	755




III EMAITZEN AZTERKETA

2. Itxialdiaren beharra

Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko	
Batere ados ez	35
Ia ez nago ados	79
Nahiko ados	346
Guztiz ados	488
TOTALA	948

Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko

■ Batere ados ez ■ Ia ez nago ados ■ Nahiko ados ■ Guztiz ados



10-17 urte bitarteko gehienek beharrezkoa ikusten dute itxialdia: % 88a nahiko edo guztiz ados daude etxean gelditzearekin. Estatu mailako adostasun maila oraindik altuagoa da portzentajea %94,6 baita.




III EMAITZEN AZTERKETA

2. Itxialdiaren beharra

Adina eta sexuaren arabera emaitzak honako hauek dira:

Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko.

Nahiko edo guztiz ados agertu direnak adina eta sexuaren arabera (%)



Adina eta sexuaren araberako azterketak ematen diguna da ia adin guztietan nesken adostasun maila altuagoa dela mutilena baino.

Horrekin batera deigarria den beste datu bat da 17 urteko mutilen artean dezente jaisten dela erabakiarekiko adostasun maila.




III EMAITZEN AZTERKETA

2. Itxialdiaren beharra

Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko

Nahiko edo guztiz ados agertu direnak sexuaren arabera (%)



Sexuaren arabera aztertzerakoan ikusten dugu neska gehiago direla itxialdiarekin ados daudenak: 10 puntuko aldea dago neska eta mutilen artean.

MUTILAK	NESKAK	EG	GUZTIRA
302	508	24	834




III EMAITZEN AZTERKETA

2. Itxialdiaren beharra

Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko

Nahiko edo guztiz ados agertu direnak sexua eta adin-tartearen arabera (%)



Bi taldeetan nesken adostasun maila altuagoa dela ikus dezakegu alboko grafikoan.

	MUTILAK	NESKAK	EG	Guztira
10-13 urte	180	267	10	457
14-17 urte	122	241	14	377
GUZTIRA	302	508	24	834




III EMAITZEN AZTERKETA

3. Etxebizitzan bizi diren pertsona kopurua

Eguna etxe barruan pasatzeak eskatzen duen egoera honetan, kontutan hartzeko aldagai bat izan daiteke, etxe barruan zenbat pertsona bizi diren aztertzea. Horretarako, *"Zu zenbatuta, une honetan zenbat pertsona bizi zarete elkarrekin etxean?"* galdera txertatu da galdetegian.

Taulan aurkezten den bezala, galdetegia erantzun dutenen artean gehienak (zehazki %56a) 4 pertsona biltzen dituen etxeetan bizi dira. Askok dira ere (%21) 5 pertsonekin osatutako familietan bizi direnak. Bien artean beraz laginaren %77a hartzen dute.






III EMAITZEN AZTERKETA

4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak

Haur eta nerabeak gehien kezkatzen dituzten egoerak ezagutu nahi izan ditugu, horretarako, egoera zehatz batzuk aurkeztuz eta 1-3 bitarteko eskala batean horiekiko larritasun maila adierazteko eskatuz.




Ondorio nagusia litzateke haur eta nerabeen kezka handiena familia dela: familiako norbait gaixotzea da kezka nagusia, eta ondoren aitona-amonaren bakardadea. Horrekin batera ere familiaren egoera ekonomikoa da haur eta nerabeentzat kezka iturria.



III EMAITZEN AZTERKETA

4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak




Sexuari erreparatuz gero, ondorio nagusia da orokorrean neskek mutilek baino larritasun maila handiagoa azaltzen dutela.

Sexuen arteko diferentziarik nabarmenena eskolara itzultzearekin lotuta dago: neskak mutilek baino kezkatuago daude gai horrekin, bien arteko diferentzia 11 puntukoa izanik.



III EMAITZEN AZTERKETA

4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak




Taulan eta grafikoan ikusi daitekeenez, **kezkak ez dira adinaren arabera gehiegi aldatzen**. Egoera ekonomikoa da haur eta nerabeak gutxien kezkatzen dituen, eta **gaixotzea zein nagusiak itxialdia bakarrik pasatu behar izateak kezkatzen ditu gehien**. Adin guztietan neskek kezka handiagoa adierazten dute

Mutilak	10-13 urte %	47	70	56	76	87	56	87	56
	14-17 urte %	55	62	61	76	81	61	81	61
Neskak	10-13 urte %	51	79	62	82	92	62	92	62
	14-17 urte %	51	70	65	74	87	65	87	65
EG	10-13 urte %	20	90	50	70	70	50	70	50
	14-17 urte %	65	82	76	88	82	76	82	76
Globala %		51	72	61	77	87	61	87	61



III EMAITZEN AZTERKETA

4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak



Bi taldetan banatuta datuak aztertuz gero argiago ikus daiteke adinaren eragina. Orokorrean kezka iturria berdina da bi taldeentzat: familiako norbait gaixotzea.

Orokorrean ere 14-17koen artean pixka bat baxuagoa da kezka maila, bi esparrutan ez ezik: salbuespen egoeraren ondoren familiaren egoera ekonomikoa ,eta beste pertsonen jarreraren ingurukoa.




III EMAITZEN AZTERKETA

4. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak

Itxialdian haur eta nerabeak kezkatzen dituenak

(Adinaren arabera)






III EMAITZEN AZTERKETA


5. Etxean eskura dituzten baliabideak

Itxialdian lagungarriak izan daitezken baliabide zehatz batzuk, haur eta nerabeen etxeetan duten presentzia ezagutu nahi izan dugu, honelakoak etxean eskura dituzten edo ez zehazteko eskatuz.



Taulan aurkezten den bezala, **kasu guztietan oso ehuneko altuetaz ari gara** (%90tik gorakoak), esan dezakegu galdetegia erantzun duten haur eta nerabeen etxeetan **aztertutako baliabideak ohikoak direla**, eta ez dela adinaren arabera aldaketa nabaririk antzematen.

Dena den kontutan eduki beharko genuke galdetegia online bidali dela eta horrek kanpoan utzi dituela interneteko konexioa ez duten haur eta nerabeak. Beraz galdetegi honen bidez ezin izan dugu neurtu haur eta nerabeen artean egon daitekeen arrakala teknologikoa.



Ezkerreko grafikoan ikus daitekeen moduan estatu mailako datuak oso antzekoak dira. Aipatzeko ezberdintasun bakarra da, inpresora gutxien daukaten baliabidea izanik bi kasutan, asko jaisten dela portzentajea estatu mailan.




III EMAITZEN AZTERKETA

6. Itxialdian denbora pasatzeko dituzten ohitura eta joerak

Ezagutu nahi izan dugu, zertan pasatzen ari diren haur eta nerabeak itxialdi denbora. Ekintza zerrenda bat aurkeztu zaie, ekintza bakoitza egiten duten maiztasuna zehazteko eskatuz (1. Behin ere ez / 2. Oso gutxitan, oso tarteka / 3. Ia egunero / 4. Egunean behin baino gehiagotan)

Aste honetan zein maiztasunekin egin dituzu honako ekintza hauek?

■ Behin ere ez ■ Oso gutxitan, oso tarteka ■ Ia egunero ■ Egunean behin baino gehiagotan




Jasotako erantzunak orokorrean aztertuta, **ikastetxeko lanak egin eta telefono mugikorraren bitartez beste neska-mutil batzuekin txateatzea da gehien errepikatzen diren ekintzak; bi gauza horiek ia egunero eta egunean behin baino gehiagotan egiten dituztela esan digute. Gutxien egiten dituzten ekintzak berriz, ortzadarra egitea eta irakurtzea dira.**



III EMAITZEN AZTERKETA

6. Itxialdian denbora pasatzeko dituzten ohitura eta joerak



Sexuari erreparatuz ondorio orokorra antzekoa da: orokorrean antzeko maiztasunak adierazten dituzte ekintza bakoitzerako, baina neskek aitortzen duten maiztasuna pixka bat altuagoa da mutilena baino.

Gehien egiten dituzten ekintzetan zentratuz, ez dira diferentzia handirik ikusten sexuaren arabera eta aurreko taulan ikusi duguna errepikatzen da: gehien egiten dutena bai neska eta bai mutilek ikastetxeko lanak eta txateatzea da.

Sexuaren arabera aipatu dezakegun diferentzia da neskek gehiago hitz egiten dutela eta mutilek gehiago ordenagailuan jolastu.


Deigarria da ere neskek mutilek baino askoz gehiago praktikatzen dutela zaletasunen bat.

Azpimarratu nahi dugun beste ondorio bat da ariketa fisikoaren maiztasuna; bai neskek bai mutilek esaten dute egunero egiten dutela kirola, dantza edo ariketa fisikoa.



III EMAITZEN AZTERKETA

6. Itxialdian denbora pasatzeko dituzten ohitura eta joerak



Adina kontutan hartuta, goiko taulan ikus daitekeenez, antzeko ohiturak dituzte bi taldeko kideek.

Zehaztasun gehiagorekin aztertuz, aipatu daiteke orokorrean zertxobait baxuagoa dela nerabeek kategoria guztietan adierazten duten maiztasuna; txateatzea ez ezik, kasu horretan altuagoa izanik maiztasuna 14-17koen artean.


Kezkagarria iruditzen zaigu irakurtzeko ohitura edo zaletasun falta orokorra izanik adinarekin zenbat jaisten den ikusteak.



III EMAITZEN AZTERKETA

7. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila

Itxialdi momentu hau, norberaren bizitzaren inguruan hausnartzeko denbora izan daiteke ere, hau kontutan izanik, haur eta nerabeek momentu honetan beraien bizitzaren alderdi ezberdinen inguruan duten iritzia ezagutu nahi izan dugu, familiako bizitzarekin, etxearekin, lagunekin, beraien buruarekin eta orokorrean beraien bizitzarekin zein punturaino pozik sentitzen diren 1-7ko eskala batean jasotzeko eskatuz.



Ondorio nagusia da haur eta nerabeak nahiko pozik daudela orokorrean, proposatutako eremu guztiak jasotzen duten balorazioa 6aren inguruan kokatzen baita.

Eremuen arteko diferentzia handirik egon ez arren ikusten duguna da gehien baloratzen dutena etxea dela eta gutxien beraien burua.

Gráfico 12: Satisfacción vital con diversos aspectos: Puntuación media (1-7)




Estatuko datuak oso antzekoak dira: 6aren inguruan kokatzen dira balorazioak, gehien baloratzen dutena etxea eta familia dira eta autobalorazioa da balio baxuena.



III EMAITZEN AZTERKETA

7. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila

Ze puntutarate ondo sentitzen zara ...
(Sexuaren arabera)



Sexuen araberako azterketak orokorrean ematen duena da altua dela balorazioa bi kasutan. Ezberdintasun batzuk ikusten badira ere, gure ustez ez dira esanguratsuak oso alde txikia dagoelako.


	Mutilak	Neskak	EG*	Totala
Zure familiako bizitzarekin	6,2	6,2	5,8	6,2
Zure lagunekin	6,0	6,2	5,8	6,1
Zure buruarekin	6,0	5,7	5,7	5,8
Bizi zaren etxearekin	6,2	6,3	6,4	6,3
Zure bizitzarekin orokorrean	6,1	6,0	5,9	6,0



III EMAITZEN AZTERKETA

7. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila

Adinaren arabera azterketak ezberdintasun nabariagoak ematen dizkigu: balorazio oso onak izanda bi taldeetan, 14-17koen artean baxuagoak dira eremu guztietan, bereziki bietan: beraien buruarekiko balorazioa eta beraien bizitza orokorrean baloratzerakoan.






III EMAITZEN AZTERKETA

7. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila

Adinaren arabera azterketan sakonduz gero nabariagoa da joera: adina aurrera egin ahala behera egiten du balorazioak; batez ere norberaren buruarekiko balorazioak.

Dena den, guztiz normala iruditzen zaigu joera hori; nerabezaroaren ezaugarriekin lotzen bai dugu, eta ez bizitzen ari diren ezohiko egoerarekin.



	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	16 urte	17 urte	Totala
Zure familiako bizitzarekin	6,5	6,6	6,3	6,2	6,1	6,0	5,8	5,6	6,2
Zure lagunekin	5,8	6,2	6,3	6,2	6,2	6,1	5,7	5,8	6,1
Zure buruarekin	6,3	6,4	6,1	5,9	5,8	5,5	5,2	4,9	5,8
Bizi zaren etxearekin	6,5	6,6	6,5	6,3	6,1	6,2	5,8	6,0	6,3
Zure bizitzarekin orokorrean	6,3	6,5	6,4	6,1	5,9	5,8	5,6	5,3	6,0




III EMAITZEN AZTERKETA

8. Ikasketekin lotutakoak

Etxean zaudenetik eskolako edo institutuko lanak egiten badituzu, zure ustez...


■ Gehiegizkoa da ■ Egitea lortzen dut ■ Lan gutxi da



Lehenago ikusi dugu nola itxialdian haur eta nerabeek egunero egiten duten gauzen artean eskolako lanak dauden.

Horien inguruan galdetzerakoan orokorrean gehiengo batek uste du egingarriak direla (grafikoan horiz).

Bi taldetan banatuz gero, ikusten dugu nerabeen artean zailtasun handiagoak daudela 10 pertsonetik 3k esaten baitute gehiegizko lana dela.






III EMAITZEN AZTERKETA

8. Ikasketekin lotutakoak

Etxean zaudenetik eskolako edo institutuko lanak egiten badituzu, zure ustez...
(Sexuaren arabera)




Estatu mailako datu orokorrak antzekoak dira: %60aren inguruan kokatzen da eskolako lanak egingarria direla esaten dutenen kopurua, eta helduenek zailtasun gehiago dituzte

Sexuaren arabera aztertuta berriz, diferentzia batzuk agertzen dira: mutilek neskek baino errazago egiten dituztela esaten dute; eta, estatu mailan nesken %60ak esaten du iristen dela egitera eta Gipuzkoan berriz 10 puntu igotzen da portzentaje hori.

Mutilek eskolako lanak egiteko neskek baino zailtasun gehiago dituztela adierazten dute.

Gráfico 17: Si haces tareas del cole o el instituto desde que estás en casa te parece que...
(%) sobre total de respuestas, según sexo y edad.







III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: tristura

Egun hauetan, zerk eragiten dizu TRISTURA?



Egun hauetan, zerk eragiten dizu TRISTURA?



Ezkerreko grafikoan erantzunen lehendabiziko kodifikazioaren arabera lortutako portzentajeak ikus daitezke. Gehienek esaten digutena da lagunak eta familia ez ikusteagatik triste daudela; baina gehienek lagunak aipatzen dituzte (%23a), batzuk biak aipatzen dituzte (%12a), eta, azkenik, beste batzuk bakarrik familia (%7). Galdera irekia izanik garrantzitsua iruditu zaigu ñabardura horiek jasotzea eta horregatik 3 kategoria ezberdindu dira lehendabiziko grafikoan.

Eskubiko grafikoan berriz hirurak batu ditugu argi ikusten delako horrela hiruren artean daukaten pisua: erantzun dutenen %43arentzat triste egoteko arrazoi nagusia da lagunak eta familia ezin ikustea.




III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: tristura

Egun hauetan, zerk eragiten dizu TRISTURA?
(Sexuaren arabera)

■ Mutila ■ Neska



Sexuaren araberako azterketak ematen diguna da mutilen kasuan kalera ezin irtetea dela triste egoteko arrazoi nagusia, eta neskak berriz lagunekin ezin egoteagatik daude triste.

Lagunekiko harremana pixka bat hozten ari dela konturatzen naiz, eta tristea da.

Jendea faltan botatzen dut batez ere nire amona

Kalera ez ateratzeak lagunekin eta aiton amonak ez ikusteak uste nuen baina tristura gehiago eman dit.




III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: tristura

Egun hauetan, zerk eragiten dizu TRISTURA?

(Adin-tartearen arabera)



Adinaren arabera erantzunak aztertuz ikusten duguna da 10-13 adin tartean triste egoteko arrazoi nagusia dela etxetik ezin irtetea, eta ondoren lagunak ez ikustea; eta 14-17koen artean berriz aldatzen dela hurrenkera lehenengo lagunekin ez egotea eta bigarren (baina ia 10 puntuko diferentziarekin) etxetik ezin irtetea.


Pertsonak sufritzen ari direlako triste nago

Nire lagunak faltan botatzen ditut
Besarkadak ere faltan botatzen ditut(lagunenak noski)



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: beldurra



Ez, virusa baino gehiago jendearen jokaera da agian pixkabat kezkatu dezakeena, baina zorionez egiten duten gauza arraro bakarra, komuneko paperarena da.

Jende asko hiltzea gehien bat nire familikoa.


Kasu honetan ez dago zalantzarik: erantzun dutenen %81ak esaten du gaixotasunak beldurtzen dituela: beraiek edo ingurukoak gaixotzeak edo hiltzeak da beldur gehien eragiten dietena. Horretaz gain, egoera luzatzearen beldur direla aipatzen dute, baina kasu honetan portzentajea asko jaisten da : %10a da.



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: beldurra

Egun hauetan, zerk eragiten dizu BELDURRA?
(Sexuaren arabera)



Sexuaren arabera erantzunak aztertzerakoan ikusten duguna da neskak mutilak baino beldurtuago daudela gaixotasunagatik ; mutilen erantzunetan berriz, nahiz eta koronabirusa izan beldur gehien eragiten dietena, aniztasun gehiago ikusten dugu erantzunetan beste kategorietan mutilen erantzunak neskenak baino gehiago baitira.


Udan
etxean
jarraitzea

aiton
amonak
hiltzea



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: beldurra




Beldurra egoteko arrazoi nagusia berdina izanik bi taldeetan txikienek neurri handiago batean adierazten dute. Nerabeen artean berriz igo egiten da ikasketekin lotutako kezka.



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: poza

Egun hauetan, zerk eragiten dizu POZA?



Etxean egon diren bitartean zer eragiten dieten poza galderari erantzuterakoan gehien errepikatzen dutena da familiarekin denbora pasatzea (%54).

Ondoren aipatzen dutena da lagunekin online jolastea edo hitz egitea (%16); eta, ia maiztasun berdinarekin (%14), hirugarren arrazoi bat jaso dugu pozik egoteko atsegin dituzten gauzak egin ahal izatea.

Ettxeko lauak
batera
jolasten
garenean.

Poz gehiena ia inoiz
ez bezala, egun
guztian familiarekin
egotea da.




III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: poza

Egun hauetan, zerk eragiten dizu POZA?
(Sexuaren arabera)

Mutila Neska



Denbora gehiago egon dezakegula elkarrekin eta gauza dibertigarriak egiteko denbora dugula.

Lagunekin fornite jolastea eta familiarekin denbora asko pasatzea

Sexuaren arabera aztertuta biek identifikatzen dute pozik egoteko arrazoi nagusi bezala familiarekin denbora pasatzea (neskek mutilek baino portzentaje zertxobait altuagoan).

Baina bigarren lekuan agertzen den arrazoaiferentea da: mutilentzat atsegin dituzten gauzak egin ahal izatea da eta neskentzat lagunekin hitz egitea.

Erantzun hauek zertan pasatzen duten denbora aztertzerakoan lortutako emaitzekin koherenteak dira: mutilek denbora gehiago pasatzen dute ordenagailuarekin jolasten eta neskek lagunekin hitz egiten.




III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: poza

Egun hauetan, zerk eragiten dizu POZA?

(Adin-tartearen arabera)



Etxekoekin egon ahal izateak ematen dit poza, otorduetan esaterako, barre asko egiten dugu; edota elkarekin kirola egitean, sukaldatzean, jolastean...

Adinaren arabera azterketatik ondorioztatzen duguna da: bi taldeetan pozik egoteko arrazoi garrantzitsua izanik familian pasatako denbora, 14-17 bitartekoan artean dauka garrantzia gehiago.


Gaztetxoek ia berdin baloratzen dute online pasatako denbora jolasten edo hitz egiten.



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: ametsak

Desio bat eskatzeko aukera izango bazenu, zer izango litzateke?



Udalekutara
joatera nire
lagunarekin

Kalean lagunekin pipak
jaten egotea, aspertuta
bagaude ere eta familia
guztiarekin bazkari
handi bat egitea.

Hau dena bukatzea.
Denak ondo
egotea.


Galdetegia erantzuteko momentuan hiru desio dituzte haur eta nerabeak: lehenik, normaltasunera itzultzea, ondoren koronabirusa desagertzea eta hirugarrenik kalera irtetea.

Lagunekin egoteko desiratzen daude ere baina besteen atzetik jartzen dute.



III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: ametsak



Denek nahiko luketena da normaltasunera itzuli, baina nesken artean indartsuago da desio hori. Bigarren lekuan biek jartzen dute gaixotasuna desagertzea. Eta nahiko antzekoa da ere kalera irteteko nahia.

Dena bukatzea. Eta hontatik ahal den hoben ateratzea. Ahalik eta hildako gutxienekin.

Hau dena amaitzea eta udara normal luze bat igarotzea




III EMAITZEN AZTERKETA

9. Emozioak: ametsak

Desio bat eskatzeko aukera izango bazenu, zer izango litzateke?

(Adin-tartearen arabera)

10-13 urte 14-17 urte



Adina kontutan edukita ezberdintasun batzuk agerian geratzen dira: 10-13 adin tartean daudenek batez ere gaixotasuna desagertzea nahi dute; 14-17 adin tartekoek berriz normaltasunera itzuli nahi dute. Horrekin batera nerabeek eskatzen dutena da koronabirusa desagertzea eta kalera irtetea.


Zoriontsu izatea,
osasuna
edukitzea eta
conquisera
joatea.



III EMAITZEN AZTERKETA

10. Azken galdera irekia

Zuretzat garrantzitsua den beste zer bait ?



Batzuk aukera aprobetxatu dute desiratzen dutena berriro esateko: kalera irtetea, koronabirusa desagertzea eta normaltasunera itzultzea.

Baina deigarria da beste batzuk aukera horretaz baliatu direla itxialdiaren beharra azpimarratzeko.

Nabarmentzekoa da ere badagoela haur eta nerabeen artean etxeko lanekin nekatuta dagoena eta ikasketekin kezkatuta.

Bukatzeko aipatu nahi ditugu ere jasotako erantzun optimistak: eskerrak eta animoak emanez eta egoeraren alderdi positiboak azpimarratuz.



IV EMAITZA NAGUSIAK



1. Parte-hartzea

Parte-hartzea oso altua izan da (948 erantzun jaso ditugu). Antza denez haur eta nerabeek beraien iritzia emateko gogo handia daukate. Gipuzkoa guztira zabaldu da galdetegia, eta herri askotatik (53) jaso ditugu erantzunak.

Egia da ere neskek mutilek baino gehiago parte hartu dutela: zehazki, %58a izan da nesken parte-hartzea. Nerabeen artean (14-17 urte) nesken parte-hartzea oraindik altuagoa da %62a izatera iristen baita. 10-17 adin tartekoentzat da galdetegia, eta adin guztietako erantzunak jaso baditugu ere 12, 13, 14 eta 15 urte dituztenek parte hartu dute gehien bat.

Estatu mailako datuekin alderatuta Gipuzkoako erantzun kopurua askoz altuagoa izan da; estatuan 425 erantzun jaso dituzte, horietatik 7 bakarrik euskal erkidegotik. Gipuzkoan erabilitako galdetegia askoz motzagoa dela kontutan izanik ere (estatuan erabilitako galdetegia 25 galdera ditu, guk horietatik 10 aukeratu ditugu), nabarmendu nahi dugu Gipuzkoako haur eta nerabeen aldetik jasotako erantzun kopurua.

Parte-hartzearekin lotutako gainontzeko aldagaien alderaketatik azpimarratzekoa da estatuko nesken parte-hartzea mutilena baino altuagoa bada ere (%52), Gipuzkoan proportzio hori altuagoa dela (%58). Sexua esan nahi ez duten kopurua berriz nahiko antzekoa da: Gipuzkoan %3a da portzentaje hori, eta estatuan %4a.

Atal honekin bukatzeko esan adinari dagokionez bi azterketetan 12 urtekoak izan direla gehien parte hartu dutenak; bi kasutan ere 10-14 adin tartean daudenak parte hartu dute batez ere. BI ikerketen arteko ezberdintasuna 15-17 urte dituztenen parte-hartzean datza, Gipuzkoan adin horietako erantzun gehiago jaso ditugu.



2. Eskubideen pertzepzioa

10-17 adin tarteko gehiengo altu batek (%80) eskubide subjektu direla uste du. Bi taldetan banatu ondoren (10-13 eta 14-17) ikusten duguna da kontzientzia hori adinarekin igo egiten dela, altuagoa izanik nerabeen artean. Estatu mailan 18 urtetik beherakoek eskubide propioak dituztela pentsatzen dutenen kopurua oraindik altuagoa da %90era iritxiz.

Gipuzkoara bueltatuz, sexuaren arabera datuak aztertzerakoan berriz ikusten dena da, talde bakoitzean neskek mutilek baino pertzepzio baxuagoa dutela.



IV EMAITZA NAGUSIAK



3. Itxialdiaren beharra

Deigarria da erantzun dutenen itxialdiarekiko adostasun maila: %88a ados dago etxean geratzeko erabakiarekin. Kasu honetan sexuaren arabera azterketak ematen duen emaitza interesgarria da ere, nesken eta mutilen artean ezberdintasunak bai daude; baina oraingoan ikusten duguna da nesken adostasun maila askoz altuagoa dela mutilena baino 10 puntukoa da tarteak.

Estatuko datuek esaten digutena da oraindik adostasun maila altuagoa dagoela konfinamenduaren erabakiarekin han portzentajea %94,6ra arte igotzen baita nahiko edo erabat ados dauden portzentajea.

Bi emaitzak batuz nabaria da beraz generoak daukan eragina: batetik, neskei gehiago kostatzen zaie beraien burua eskubide subjektu gisa ikustea; eta, bestetik, prestutasun handiagoa dute ados egoteko hartutako erabakiekin. Beste ikuspegi batetik ere esan dezakegu egoeraren aurrean neskek jokabide arduratsuagoa erakusten dutela.



4. Etxebizitzan bizi diren pertsona kopurua

Haur eta nerabe gehienak 4 pertsonaz osatutako familietan bizi dira (%56); dezentek dira ere (%21) beste 4 pertsonekin bizi direnak; bien artean laginaren %77a osatzen dute.

Estatuko azterketan parte hartu dutenen artean ere gehiengoak 4 pertsonaz osatutako unitatetan bizi dira, portzentajea baxuagoa bada ere, zehazki % 51kkoa da. Ondoren datorren portzentajea estatuan berriz da 3 kidez osatutakoa, %21 dira horrela osatutakoak.



5. Egoerak haur eta nerabeei eragiten dizkien kezkak

Haur eta nerabeen kezka nagusia familia da, batez ere familiako norbait gaixotzea, eta, ondoren, aiton-amonak sufritzen ari diren bakardadea.

Esparru honetan adina eta sexuaren arabera azterketak ematen duena da, kezka iturria berdina izanik, orokorrean, larritasun maila handiagoa dela nesken artean, eta txikienak helduenak baino kezkatuago daudela.



IV EMAITZA NAGUSIAK

Estatuko haur eta nerabeen artean ere familia da kezka iturri nagusia, %83ak dio oso kezkatuta dagoela familiakoren bat gaixotu edo hiltzearekin. Bat egiten dute ere bigarren lekuan aiton-amonen egoera aipatzerakoan.



6. Etxean eskura dituzten baliabideak

Erantzun dutenen etxeak ondo hornituta daude orokorrean. Itxialdian eskolako lanak egiteko baliabide nahiko dituztela esan dezakegu mahaia, ordenagailua eta interneteko konexioa ia denek dutelako. Dena den, galdetegia online erantzun dutenez, kontziente gara horrek suposatzen duela ez dutela galdetegia erantzun interneterako konexiorik ez dutenak; emaitza hauek beraz testuinguru hori kontutan edukiz interpretatu behar dira. Beraz, galdetegi honen bidez ezin izan da neurtu haur eta nerabeen artean egon daitekeen arrakala teknologikoa.

Estatuko ikerketan ateratako emaitzak oso antzekoak dira.



7. Itxialdian denbora pasatzeko dituzten ohitura eta joerak

Itxialdian gehien egiten duten ekintzen artean eskolako etxeko-lanak eta txateatzea agertzen dira, eta gutxien egiten dutena irakurtzea da. Kezkagarria iruditu zaigu aitortu duten irakurtzeko ohitura falta, bereziki adinarekin asko jaisten delako.

Azpimarratzekoa da ere haur eta nerabeek esaten dutenez, egunero egiten dute ariketa fisikoa; horrela da adin guztietan, eta berdin neska eta mutilen artean.

Esparru honetan adina eta sexuaren araberako azterketak ematen duena da neskek gehiago hitz egiten dutela eta mutilek gehiago jolastu. Neska gehiago dira zaletasunen bat praktikatzten dutenak. Azkenik esan oraindik ere neska eta mutilen artean aldea egoten jarraitzen duela etxeko lanak egiteari dagokionez: neskek zeregin horietara mutilek baino denbora gehiago eskaitzen diote (8 puntuko aldea dago bien artean).

Berriro ere estatu mailako datuak oso antzekoak dira: han ere neska eta mutilen arteko ezberdintasuna ikusten da, mutilak denbora gehiago eskainiz modu digitalean jolasteari eta neskak komunikazioari. Han ere irakurtzea gutxien egiten dituzten gauzen artean kokatzen da.



IV EMAITZA NAGUSIAK



8. Beraien bizitzarekiko duten asebetetze maila

Orokorrean galdetegia erantzun dutenak pozik agertzen dira daukaten bizitzarekin, nahiz eta ez ohiko egoera izan. Balorazio altuenak daukaten etxeari eta lagunei ematen dizkiete. Beraien burua da gutxien baloratzen dutena, baina halere balorazioa altua da.

Neskek mutilek baino gehiago baloratzen dute beraien familia, lagunak eta etxea; eta mutilek baino gutxiago baloratzen dute beraien burua eta beraien bizitza orokorrean.

Adinari dagokionez orokorrean adina aurrera egin ahala balorazioak jaisten badira ere, balorazio oso positiboak izaten jarraitzen dute. Beheranzko joera horretan nabariena beraien buruarekiko balorazioaren beherakada da, baina gure ikuspegitik guztiz normala nerabezaroaren ezaugarriekin lotuta ikusten baitugu.

Azterketa orokorrarekin alderatuta berriro ikusten ditugu oso antzeko erantzunak: oso balorazio altuak ematen dituzte ere (6aren ingurukoak), etxea eta familia dira gehien baloratzen dutena eta gutxien beraien burua.



9. Ikasketekin lotutakoak

Gehienek eskolako lanak egingarriak direla esaten badute ere, kezkarria da lan guztiak egitera iristen ez dela erantzuten dutenen kopurua. Bereziki nerabeen artean da kezkarria, 14-17 urte dituzten 10 gazteetatik 3k esaten baitu ez dela iristen lanak bukatzera.

Sexuaren arabera orokorrean mutilek neskek baino eskolako lanak egiteko zailtasun gehiago adierazten dute.

Estatu mailan ere %60 inguru dira eskolako lanak egiteko zailtasunak dituztela esaten dutenak; baina estatuan ordea neskek adierazten dute zailtasun handiagoa.



IV EMAITZA NAGUSIAK



10. Emozioak

Azterketaren helburua izanik haur eta nerabeei aukera ematea itxialdia nol a bizitzen ari diren esateko, koherentea iruditu zaigu zer sentitzen duten galdetzerakoan erantzuna irekita uztea beraiek nahi dutena erantzun ahal izateko, helduok alde z aurretik erantzuna zehaztu gabe. Egoera honetan zergatik daude triste edo zeren beldur diren esateko eskatu diegu; itxialdian zehar zerk ematen dieten poza eta zer amesten duten.

Galdera honetara iristerakoan erantzun kopurua jaitsi bada ere espero baino gehiago izan dira jasotako erantzunak nahiz eta beraientzat esfortzu handiagoa suposatu; egia da ere ez dituztela oso erantzun luzeak eta landuak bidali. Kasu honetan ere nesken parte-hartzea handiagoa izan da.

- **Tristezia**

Triste daude batez ere ezin dutelako lagunekin egon eta ondoren, ezin direlako kalera irten. Triste egoteko adierazten dute beste arrazoi bat da koronabirusak eragindako gaixo eta hildakoak.

Mutilek okerrago daramate kalera ezin irtetea, eta arduratuago daude koronabirusagatik; neskak, berriz, triste daude batez ere lagunekin ezin direlako egon.

Adinari erreparatuz, ikusten duguna da gazteenak triste daudela kalera irten ezin direlako, eta nerabeak aldiz lagunekin ezin direlako elkartu.

- **Beldurra**

Erantzun dutenen gehiengo zabal baten (%81a) beldur nagusia da familiako edo inguruko norbait gaixotzea edo hiltzea. Dirudienez neskek mutilek baino beldur gehiago dute, eta gazteenek nerabeek baino gehiago. 14-17 taldean dezente igotzen da ikasketekin lotutako beldurra.



IV EMAITZA NAGUSIAK

▪ Poza

Asko dira (%54a) esaten dutenak egoera honetan pozten direla familiarekin egoteko denbora dutelako eta familiako norbaitekin bideoaren bidez komunikatzen direnean. Neska gehiago dira gauza horiekin pozten direnak, baina mutilekin aldea ez da oso handia. Pozik egoteko identifikatzen duten bigarren arrazoia da atsegin duten gauzak egiteko denbora edukitzea.

Itxialdiari esker beraz, denbora gehiago izan dute batetik, familiarekin egoteko, eta, bestetik, beraiek aukeratutako gauzak egiteko eta biak asko baloratzen dituzte (batez ere lehenengoa).

▪ Ametsak

Azterketan parte hartu dutenek batez ere 3 gauzekin amesten dute: lehendabizi, normaltasunera bueltatzearekin, ondoren, koronabirusa desagertzearekin eta, azkenik, kalera irtetearekin.

Estatuko alderaketa egin ondoren ikusten duguna da emaitzak oso antzekoak direla nahiz eta erantzunak irekiak izan: koronabirasugatik daude batez ere beldurtuta, triste egoteko arrazoi nagusietakoa da ere aiton-amonak edo familiako norbait gaixotzea.

Familia da ere estatu mailan tristura eta poza iturri nagusia: pozik daude familian egoteko denbora gehiago dutelako, eta triste aiton-amonengatik urruti egoteagatik.

Gauza bera amesten dute: egoera hau guztia bukatzea.

ERANSKINAK

PARTE-HARTZEA

HERRIA		1. Aduna	10. Altzaga	11. Azkoitia	12. Azpeitia	13. Beasain	14. Berastegi	15. Bidania-Goiatz	16. Deba	17. Donostia	18. Elduain	19. Elgoibar	2. Aia	20. Errenteria	21. Errezil	22. Ezkio	23. Eskoriatza	24. Hernani	25. Hondarribia	26. Idiazabal	27. Irun	28. Iruña	29. Itsaso	3. Albiztur	30. Itsasondo	31. Itziar	32. Larraul	33. Lasarte-Oria	34. Lazkao	35. Leaburu	36. Lezo	37. Mendaro	38. Oiartzun	39. Oñati	4. Alegia	40. Ordizia	41. Orio	42. Ormaiztegui	43. Pasaia	44. Segura	45. Tolosa	46. Urnieta	47. Usurbil	48. Villabona	49. Zarautz	5. Alkiza	50. Zegama	51. Zestoa	52. Zizurkil	6. Andoain	7. Anoeta	8. Aretxabaleta	9. Astigarraga	EG	Guztira
Mutilak	10-13 urte		10	20			4	1	72		2		4				1	1			1	6			1	1		2	2				1	7		14	11		2	1	10	6	8		4	3	6	2	4		1	2	10		220
	14-17 urte		3	21			3		35		1		3	2				1	1		2	2	1		1		1		1				1	8	1	11	1	1	4		3	6	8		4	1	5					14	1	147	
	Totala		13	41			7	1	107		3		7	2				1	2	1		3	8	1		2	1	1	2	3			2	15	1	25	12	1	6	1	13	12	16		8	4	11	2	4		1	2	24	1	367
Neskak	10-13 urte		27	27		1	3		56	1	1		8	2			6	2				1		2				1	1	3	2	1	1	28		13	5		1	12	18	19	2	4	3	7	7	3			1	20	1	290	
	14-17 urte	1	8	43	1		2		67		1	1	1			3		9	1	3	1		2	1				1		1			18		8	4	3	3		1	6	20		4	1	10	3	1	1		2	29	4	264	
	Totala	1	35	70	1	1	5		123	1	2	1	9	2			9	2	9	1	3	2		4	1			1	2	3	2	1	1	46		21	9	3	4		13	24	39	2	8	4	17	10	4	1		3	49	5	554
EG		1	1	5												1	1										1						2		1				1		4			1	1	3				2	2	27			
Guztira		1	1	49	116	1	1	12	1	230	1	5	1	16	4	1	11	4	10	1	6	10	1	4	3	1	1	4	5	3	2	1	3	63	1	47	21	4	10	2	26	36	59	2	16	9	29	15	8	1	1	5	75	8	948

GALDETEGIA

IDENTIFIKAZIOA DATUAK	Herria, sexua eta adina	
HAUR ETA NERABEAK DUTEN EGOERAREN IKUSPEGIAREN INGURUKOAK	Zel in neurritan zaude ados esaldi hauekin hauekin? (1. Behere ados ez / 2. Ia ez nago ados / 3. Nahiko ados / 4. Guztiz ados)	18 urte baino gutxiago ditugunok gure eskubideak ditugu. Neska-mutil guztiek etxean sartuta egon behar dugu Koronabirusak ez kutsatzeko.
ETXEBIZITZA BIZI DIREN PERTSONA KOPURUAREN INGURUKOAK	Zu zenbatuta, une honetan zenbat pertsona bizi zarete etxean? *	Elkarrekin etxean? *
EGOERA K HAUR ETA NERABEEI ERAGITEN DIZKIEN KEZKEN INGURUKOAK	Proposatzen dizkizugun hauetatik, zein dira orain gehien kezkatzen zaituztenak? (1. Ez nau kezkatzen / 2. Pixka bat kezkatzen nau / 3. Asko kezkatzen nau / 9. Ez dakit)	Inbeteke eta beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko aukera duguenean nire familia poizekoak izatea edo diru gutxiago izateak. Suplementak eta denbela, janaria edo beharrezkoak diren beste gauza batzuk faltatzeak. Kalera iten ezinik daudeteke, pertsona batzuk oldarkor jartzeak. Nire familian norbaitek leña gailtzeak. Nire familian norbait Koronabirusak jota galxotu edo hilitzeak. Ordenez luze bat edo tablet bat, behar dudanean erabiltzeko Internetarako konektibitatea Inpresora bat Kostetako edo blastetako zure mahaia Liburuek eta ipuinak Mahaigailoak
ETXEAN ESKURATUTZEN BALIABIDEEN INGURUKOAK	Etxean baliatzen dituzu gauza hauek? (1. Bai / 2. Ez / 3. Ez dakit)	Ordenez luzeekin edo bideo-kontsolarekin (bideo-jokoak, w...) jolastu. Kirola, dantza edo ariketa fisikoa egin. Liburuek irakurri entretenitzeko (eskolako liburuak kontuan hartu gabe). Eskolako edo institutuko lanak egin Zaletasun bat praktikatu (musika-tresna bat jo, piltatu, etab.) Telefono mugikorraren bitartez beste neska-mutil batzuekin txatatu. Zurekin ez dagoen beste norbaiti telefonoz deitu. Etxeko lanak egiten lagundu (oneak egin, mahaia jami, garbitu, janaria prestatu, etab.) Ordazarraren marrazkiak egin lehoetan jartzeko Lehoia/belko kaltetazara iten bako egitera Zure familian bizi zarekin *
KONFINAMENDUAN DENBORA PASATZEKO DITUZTEN OHITURA ETA JOEREN INGURUKOAK	Aste honetan zein maiztasunekin egin dituzu honako ekintza hauek? (1. Behin ere ez / 2. Oso gutxitan, oso tarteka / 3. Egunero / 4. Egunean behin baino gehiagotan)	Zure lagunekin *
MOMENTU HONETAN, BERAIEI BIZITZAREKIKO DUTEN ASEBETETZE MAILAREN INGURUKOAK	Gaur egun, zenbaterainoko pozik zaude honako gauzeekin? (1etik 7ra)	Zure buruarekin *
IKASBETEEN LOTURAKOAK :	Etxean zaude netik eskolako edo institutuko lanak egiten badituzu, zure ustez ... (bat aukeratu)	Bizitzaren etxeararekin *
EGOERA K BORTA RAZTEN DIZKIEN EMOZIOEN INGURUKOAK	TRISTURAK: Egun hauetan zerbaitek TRISTURA ematen dizu? Zerk? (bat baino gehiago jar dezakezu) BELDURRAK: Une honetan, zer da gehien kezkatzen zaituena? Zerbaitek beldurra ematen dizu? (bat baino gehiago jar dezakezu) POZAK: Egun hauetan, etxean, zerk ematen dizu poz gehien? Zerekin egiten duzu barre? (bat baino gehiago jar dezakezu) AMETSAK: Orain tx bertan amets edo desio bat eskatzeko aukera izango bazenu, zer izango litzateke? (bat baino gehiago jar dezakezu)	Zure biziarekin orokorrean *
BESTELA KOAK	Zuretzat garrantzitsua den beste zerbaitek kontatu nahi dituzu? Bestetik gabe, bidez ezaazu.	Len gutxi da. Egiten jartzen dut, baina batzuetan nekatu egiten naiz haiekin lan egiten. Askotan hainbeste lan da... ezin dut amaitu.

NOLA ARI ZARA BIZITZEN ITXIALDIA?



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

GAZTEMATIKA